



OSASUNGOA
EUSKALDUNTZEKO
ERAKUNDEA

OEEren 26. Osasun Biltzarra

Menpeketasunen aurrean... geure buruen jabe

Bilboko EHU-UPVko Bizkaia Aretoa - 2016ko apirilaren 22-23



XXI. mendeko gizartea, oro har, dituen baldintzengatik, hainbat menpeketasunen barne bizi da, hala nola fisikoak, psikologikoak edo sozialak. Aldaketa demografikoak, teknologikoak eta sozialak direla eta, menpeketasun berriak sortzen ari dira etengabe. Osasunaren kontzeptuan egoera fisikoaz gain, alde emozional eta sozialak aztertu nahi ditugu hainbat ikuspuntutatik. Eman nahi diogun ikuspuntua da, biltzarraren izenburuak dioen moduan, menpeketasun zahar zein berrien aurrean, osasun-langileok nola jokatu dezakegun aztertzea eta gogoeta egitea, herritarren burujabetasun-maila sustatzeko.

Bi egunetan zehar menpeketasunen inguruan hiru mahai-inguru antolatu ditugu, bata ohikoa den substantzia edo drogen menpeketasunari buruzkoa. Bigarrena teknologiek dakartzaten menpeketasun berriei buruzkoa, telefono mugikorretatik datozkigunak bereziki, eta hirugarrena zahartzaroari eta arlo sozio-sanitarioari lotutakoa.

Hiru tailer osagarri egongo dira, arlo praktikoagoak lantzeko. Horiekin batera, ahozko komunikazioei tarte gehiago eskainiko zaie, jendearen parte-hartzea eskertzeko eta bultzatzeko. Eta posterrei dagokienez, egutegian tarte bat gorde da interesatuek egileen azalpenak entzuteko aukera izan dezaten.

Bizkaian egingo den hurrengo Osasun Biltzarrak menpeketasunak hobeto ezagutzeko, prebenitzeko eta horiei aurre egiteko balio izango duela espero dugu.

Apirilak 22, ostirala

09:00 Dokumentazio-banaketa.

09:15 Ongietorria eta biltzarraren aurkezpena.

09:45-11:30 Lehenengo mahai-ingurua: *Substantziezikiko menpeketasunen aurrean*

Moderatzailea: Lourdes Unzueta Zamalloa

- *Droga berriak (mefredona, crocodil...)*. Koldo Callado Hernando, EHUKo Farmakologia saila, Irakasle agregatua.
- *Patologia duala*. Idoia Larrañaga Garate, Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko psikiatra
- *Gazteak eta alkohola*. Santi Mintegi Raso, Guruzetako Unibertsitate Ospitalea EHU, Larrialdi pediatrikoak.

- 11:30-12:00 Atsedena dia.
- 12:00-14:15 Bigarren mahai-ingurua: *Substantziabako menpekotasunen aurrean*
Moderatzailea: Jose Mari Uribarri Atutxa
- *Teknologia berriekiko menpekotasuna.* Ainhoa Otaola Agirre, Etorkintza Elkarteko teknikaria
 - *Ludopatia, eraldaketa etengabea.* Ilargi Zarate Orio, Ekintza- Aluviz elkarteko psikologoa.
 - *Autonomia emozionala, hurbiletik maitatu urrutira heltzeko.* Aritz Anasagasti Undabarrena, Emotional Network enpresako zuzendaria
- 14:15-16:00 Luntx-bazkaria
- 16:00-17:30 Ahozko komunikazioak. Moderatzailea: Angel Bidaurrezaga Van-dierdonck
- 16:00-17:30 Tailerrak:
- *Talde Terapia.* Teresa Brouard Aldamiz, Deustuko Unibertsitatea, OMIE fundazioa, psikologo klinikoa eta Deustuko Unibertsitateko irakaslea.
 - *Mendekotasunen balorazioa eta orientazioa.* Ana Rosa Aranda Lanbea Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako medikua, eta Agurtzane Etxezarraga Etxebarria, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako gizarte-langilea.
- 17:30-18:00 Atsedena dia
- 18:00-18:30 Posterren azalpena. Bideratzailea: Izaskun Elezgarai
- 18:30 OEEren Batzar Nagusia
- 19:00 Afaria (Hika Ateneo-Atxuri)

Apirilak 23, larunbata

- 09:30-11:30 Hirugarren mahai-ingurua. *Menpekotasun soziosanitarioen aurrean*
Moderatzailea: Angel Alayo Arrugaeta
- *Adinekoenganako tratu txarrak.* Lourdes Zurbanobeaskoetxea Laraudogoitia, BFAko. Ebaluazio eta Orientazio Zerbitzuko burua eta Eusko Jaurlaritzako Koordinatzaile Soziosanitarioa.
 - *Zaintzailearen zeregina.* Mikel Lopez Elorriaga BFA. Gizarte Ekintza Saila Menpekotasunaren Balorazio eta Orientazio Zerbitzua. Gizarte-langilea
 - *Zahartzaroaren erronka berriak.* Javier Yanguas, Matia Institutu Gerontologikoko Zuzendari Teknikoa.
- 11:30-12:00 Atsedena dia.
- 12:00-13:30 Ahozko komunikazioak. Moderatzailea: Leire Erkoreka Gonzalez
- 12:00-13:30 Tailerrak
- *Droga berriak detektatzea.* Ailaket Elkartea.
- 13:30-14:00 Biltzarraren amaiera

Ahozko komunikazio eta posterretarako jarraibideak


1. **Gaia.** Mota guztietako menpekotasunekin (substantziak, substantziabakoak, soziosanitarioa) lotzen dituzten komunikazioak hobesten badira ere, osasunari buruzko bestelako gaiak ere onargarriak izan daitezke.
2. **Epea.** Komunikazioak bidaltzeko azken eguna: 2016ko urtarrilaren 31
3. **Modalitateak.** Lanak ahozko komunikazio gisa edo poster gisa aurkeztu daitezke.
4. **Luzera.** Gehienez komunikazioaren luzera **300 hitzekoa** izan behar da.
5. **Izenburua.** Idatzi komunikazioaren izenburua hasieran, laburdurarik erabili gabe eta luzera egokiarekin (ez da 10 hitz baino gehiago gomendatzen).
6. **Nola sartu aplikazio informatikoan.** Komunikazioa OEEren webgunera igo behar da: [www.oeequnea.org.](http://www.oeequnea.org/) / Biltzarra / Komunikazio Jarraibideak / Komunikazioa egin:

[Komunikazioa igotzeko klikatu hemen](#)

OEEren bazkidea bazara edo Iruñean, Bilbon, Donostian edo Gasteizen egindako Osasun Biltzarretan parte hartu baduzu, dagoeneko pasahitza izango duzu eta orduan sartu zure erabiltzailea (posta elektronikoa) eta pasahitza, idatzi ahal izateko. Bestela, erabiltzaile berri modura sartuko zara. Edozein zalantza aurrean, mesedez, Idazkaritzarekin jarri harremanetan erabiltzaile bikoitzik ez sortzeko (gero diplomekin arazorik egon ez dadin):
Xabier / Patxi 944 042 720 edo oee@oeequnea.org



Osasungoa Euskalduntzeko Erakundea



Hasiera | Elkarteak | Berriak | Foroa | Biltzarrak | Agiri fondoa | Ekimenak | Loturak

2016ko Egitaraua

1 Komunikazio jarraibideak **2** ▶ Komunikazioa egin **3**

Izena eman

Nire komunikazioak

Edukiak ▶

Agerpena ▶ 2 720

Nire agiriak

Aurreko biltzarrak

Sartu

Saioa hasi

Bazkidea bazara edo aurreko biltzarretan parte hartu baduzu, dagoeneko pasahitza izango duzu eta orduan sartu zure erabiltzailea (posta elektronikoa) eta pasahitza, idatzi ahal izateko. Bestela, erabiltzaile berri modura sartuko zara. Edozein zalantza aurrean, mesedez, Idazkaritzarekin jarri harremanetan erabiltzaile bikoitzik ez sortzeko (gero diplomekin arazorik egon ez dadin):
Xabier / Patxi 944 042 720 edo oee@oeequnea.org

Erabiltzailea (E-posta):

Pasahitza:

- 6.1. Egileak: Sartzen den lehenengoa izango da ahozkoaren aurkezpena egingo duena
 - o Izena: osorik idatzi, ez hasierako hizkia soilik.

- Abizenak: euskal abizenak euskal grafiaz idaztea gomendatzen da
 - Egile bat baino gehiago: "Egilea gehitu" botoia sakatu egile gehiago sartzeko
- 6.2. Lan-zentroak: Egile bakoitzari dagokion lan-zentroa idatzi. Lan-zentroa zehazteko, erabili mesedez handitik txikirako hurrenkera: erakunde edo zentroaren izena, gero zerbitzua eta departamentua, eta, azkenik atala. Adibidez: Donostiako Ospitalea. Kirurgia Zerbitzua.
 - 6.3. Edukia betetzean, multzo bakoitzean dagokiona idatzi: 1) Sarrera, 2) Helburuak, 3) Metodoak, 4) Emaidzak, 5) Ondorioak. Atal guztiak idaztea ezinbestekoa da komunikazioa onartua izan dadin.
 - 6.4. Amaitu duzunean mezu bat jaso behar duzu posta elektronikoan. Jasotzen ez baduzu Idazkaritzarekin jarri harremanetan.
7. **Idazkera.** Erredakzioa, sintaxia eta ortografia zaindu. Saia zaitez laburpena adierazgarria eta gai horretan aditua ez den osasuneko profesional batentzat ulergarria izan dadin. Zuzentzaile ortografikoa pasatu.
 8. **Informazio osagarria.** Taulak, irudiak eta antzekoak erabili soilik ezinbestekoak badira. Hauek sinpleak eta argiak izan behar dute. Bibliografia ere ahalik laburrena izatea komeni da.
 9. **Ahozkoen iraupena eta zuzenketa.** Ahozko komunikazioen aurkezpenaren iraupena 7 minutukoa izango da eta ikusleen galderetarako beste 1-2 minutu egongo dira. Diapositiben testuak ere zuzendu behar direnez, hauek ere martxoaren 15erako aplikaziora igoko dira. Bertan idatzitakoak, noski, aurkeztutako ahozko komunikazioarekin bat etorri behar du erabat, hura baita biltzarrerako onartu den edukia. Hori dela eta, prestatuko diren diapositibak denbora horretara ondo egokituta egotea ezinbestekoa da.
 10. **Panela.** Poster edo panelen neurria 90 x 120 cm-koa izango da. Posterra, behin komunikazioa onartu ondoren, martxoaren 15erako aplikaziora ere igoko da, PDF formatuan. Posterra norberak inprimatu beharko du eta Biltzarraren lehenengo egunean, lehen orduan, dagokion lekuan eskegi (egunean bertan Biltzarreko arduradunek jakinaraziko dute posterrentzako tokia zein den).
 11. **Erantzuna.** Otsailean, Batzorde Zientifikoaren erantzuna eta lexikoa zuzentzeko proposamena jasoko dituzu. Eragozpenik ez badago, proposatu den bezala argitaratuko da.

Daten laburpena Biltzarra baino lehen

- Posterra/ahozko aurkezpena OEEren webgunera igotzea urtarrilaren 31
- Batzorde zientifikoaren erantzuna eta testuaren zuzentzeko proposamena..... otsailaren 28
- Ahozko aurkezpenen diapositibak bidaltzeamartxoaren 15
- Posterraren PDF webgunera igotzea apirilaren 15

Datak eta orduak Biltzarrean bertan

- Posterra fisikoki jartzea: ostiralean, 8:00-9:00
- Posterraren aurkezpena: ostiralean, 18:00-18:30
- Ahozko komunikazioen aurkezpena ostiralean 16:00-17:30 eta larunbatean 12:00-13:30